

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

8/2016 Foru Araua, uztailaren 13koa, Arabako Suhiltzaileak Erakunde Autonomoa (Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzua) eratzen duena

Arabako Biltzar Nagusiek, 2016ko uztailaren 13an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

8/2016 Foru Araua, uztailaren 13koa, Arabako Suhiltzaileak Erakunde Autonomoa (Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzua) eratzen duena

HITZAURREA

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, ezartzen du foru aldundiaren eskumena dela 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriei (Gasteiz izan ezik beste guztiei) suteen prebentziorako eta suteak itzaltzeko zerbitzua ematea. Zehazki, 2013ko abenduaren 31tik aurrera, aldundiek bere gain hartu behar dute zerbitzu ematea, aipatutako udalerriek zerbitzu hori ematen ez badute, eta ordutik aurrera berariaz izango da foru aldundiaren berezko beste eskumen bat, eta, beraz, eska daitekeena.

Horrez gain, Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta haren lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanei buruzko Legeak ere (27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa) suteen kontrako babesaren kontzeptua darabil lurralde historikoei arlo horretako betearazpen eskumena esleitzeko.

Bestalde, Larrialdiak kudeatzeko Legeak (1/96 Legea, apirilaren 3koa) lurralde historikoei esleitzen dizkie prebentzio, su itzaltze eta salbamendu zerbitzua sortu, antolatu eta mantentzeko eginkizuna.

Azkenik, onartu berri den Euskadiko toki araubidearen Legearen bitartez sortutako eskumen esparruak suteak prebenitu eta itzaltzea ezartzen du lehenengo udal eskumen gisa.

Beraz, EAEn foru eta toki gobernuen artean partekaturiko eskumena da, eta Euskadiko toki araubidearen Legea noiz garatuko zain, foru sektore publikoa zerbitzu hori ematen hasiko da 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan, eskala ekonomia eta zerbitzua emateko bermeak direla-eta.

Suteen prebentzioa eta suteak itzaltzea, salbamendu lanak eta eremu honetan laguntza profesionala ematen duten zerbitzu publikoak aritzen diren gainerako larrialdietan egiten diren lanak nahitaezko prestazioak dira gizartearentzat eta pertsonen segurtasun integralaren osagaiak dira. Horrenbestez, herritarren ongizatea bermatzeko botere publikoaren esku hartzea beharrezkoena den jarduketa arloetako bat da.

Bestalde, elkarrekin doaz arabar guztiei zerbitzu hori ematea eta lurralde oreka bermatzeko helburua, zeinak Arabako foru sektore publiko guztian eragin behar baitu.

Lana, bai prebentzio orokorrean, bai gertatzen diren ezbeharretan, geroago eta profesionalagoa eta espezializatuagoa da, eta antolamenduak, baliabide materialak, trebakuntza eta prestakuntza etengabe eguneratuta eduki behar dira zerbitzu publikoaren eraginkortasuna mantentzeko. Etengabeko profesionalizazioa, teknifikazioa eta eguneratzea berezko ezaugarriak dira zerbitzu publikoen antolamenduan eta diseinuan autonomia eta deszentralizazioa

beharrezkoak eta gomendagarriak direnean. Izan ere, horrela erakundeak eskaria asetzeko behar diren mekanismoak eta tresnak dauzka.

Hala ere, kasu honetan ez da bidezkoa autonomia eta espezializazio hori lortzeko antolamendu formularik egokienak, zerbitzuaren berezko eta eguneko beharrak aseko dituenak, Administrazioarekiko erabateko banaketa edo urruntzea ekartzea. Pertsonen segurtasunaren arloan da beharrezkoena Administrazioa interes publikoen defentsan baino ez aritzea. Azaldutako balio horiek bateratu beharrak azaltzen du zergatik hautatu den erakunde autonomoa sortzea Araban suteen prebentziorako eta itzaltzeko zerbitzua eta salbamenduko zerbitzua antolatzeko eta emateko.

Foru ordenamenduak ematen dituen aukeren artean, ARABAKO FORU SUHILTZAILEAK (Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzua) sortzea erabaki da, foru erakunde administratibo autonomo gisa, zerbitzua zuzenean emateko. Izaera publikokoa da, berezko nortasun juridikoa du, barne araubidean nahiz jardutean zuzenbide publikoaren pean dagoena, eta organizazio tekniko espezializatu gisa eratzen dena bere helburua mugatzen duen zerbitzu publikoa kudeatu eta emateko. Xedea herritarren bizitza eta gizartearen eta gizabanakoen ondarearen osotasun fisikoa bermatzea eta babestea da, bai prebentzioaren bidez, bai erakundearen berezko eskumenekoak diren larrialdietan eta ezbeharretan esku hartuz.

Suteen prebentziorako eta suteak itzaltzeko eta salbamenduan aritzeko ezinbestekoak dira administrazioen arteko lankidetzak eta koordinazioak, bai eta larrialdietan parte har dezaketen eragile publiko eta pribatuekikoak ere. Hau larrialdiei aurre egiteko euskal sistemaren antolamenduaren ezaugarria da. Hauxe da larrialdiei aurre egiteko euskal sistema: herritarrek kausa naturalek zein eguneroko bizimoduak eragiten dituzten arriskuetatik babesten aritzen diren eragileen multzoa.

Zerbitzuaren lege antolamenduan azpimarratu beharreko beste faktore bat da foru arauak lehenetsia ematen diola prebentziorari eta, beraz, ARABAKO FORU SUHILTZAILEAK (Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzua) erakunde autonomoaren funtsezko egitekoetako bat da. Prebentzioaren egitekoa ondo burutzeko ezinbestekoa da zerbitzu publikoak plangintzan eta prebentzio kontrolean jardutea, alde batetik ezbeharrik ez gertatzeko, eta bestetik gertatzen diren ezbeharren kalteak gutxitzeko. Baina prebentzioran botere publikoak ez ezik partikularrek ere inplikatzeko behar da. Izan ere, batzuek arrisku espezifikoak sortzen dituzte egiten duten jardueran; kasu horietan, normalean sektore araudian ezartzen da nolako neurriak aplikatu behar diren ezbeharren prebentziorako. Beste batzuk arrisku bereziko talde batekoak dira, eta kasu batzuetan jendearen pilaketak sortzen ditu arriskuak. Nolanahi ere, prebentziora herritarrek eta zerbitzu publikoak ingurune seguruagoa sortzeko lanean eta gertatzen diren larrialdietan hobeto erreagionatzeko lanean bat egiteko prozedura izan behar da. Prebentzio lanak funtsezkoak dira zerbitzu honen gizarte errentagarritasun handia lortzeko.

Foru aldundiak arlo honetan burutu zuen lehenengo jardun zuzena 1992an izan zen. Urte horretan, Arabako Foru Aldundiak, Aiarako Kuadrillarekin batera, Aiarako Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoa eratu zuen. Erakunde horrek kuadrillaren lurraldean eman du zerbitzu hori.

Ondoren, Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 15eko 222/2005 Erabakiaren bidez, Arabako prebentzio, su itzaltze eta salbamenduko foru plana onartu zen. Gero, ekainaren 21eko 46/2011 Foru Dekretuaren bidez aldatu zen. Plan horretan su itzaltze eta salbamenduko eskualdeko unitateak (SISEU) sortu ziren. SISEUak larrialdien kudeaketarako zentro integralak dira: suhiltzaileak, anbulantziak, neguko errepede zaintzako logistika, basozaintza etab.

Plan hori aplikatu eta garatzeko, 2007tik aurrera abian jarri dira, hurrenez hurren, Guardiako, Espejoko, Aguraingo eta Santikurutze Kanpezuko SISEUak. Horietaz gain, SISEUen Parke Zentrala irekiko da Iruña Okan 2017an. Aurreikusten da ezen, behin aipaturiko unitateak funtzionatzen hasita, behar diren azterlanak egitea Gorbeialdeko Kuadrillan SISEU berri bat abian jartzeko beharizanari buruz.

Ondorioz, ARABAKO FORU SUHILTZAILEAK (Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzua) erakunde autonomoa sortzeak Aiarako Partzuergoaren iraungitzea ekarriko du. Horren egitekoak, langileak eta ondarea erakunde autonomo berriak bereganatuko ditu, haren jarraitzailea izango baita eskumenetan. Horrez gainera SISEUen funtzionamendurako beharko diren lanpostuak hornitu dira. Horretarako behar diren aurrekontu plazak sortu dira eta beste batzuk zabaltzeko asmoa dago, Arabako prebentzio, su itzaltze eta salbamenduko foru planean ezarrita dagoen bezala.

Bi egituren integrazioaren helburua eskalako ekonomiak eta sinergiak aprobetxatzea da, Arabako Lurralde Historikoan larrialdiei ematen zaien arreta hobetzeko.

ARABAKO FORU SUHILTZAILEAK (Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzua) erakunde autonomoaren antolamendua dela-eta, foru arauak erabaki du erakunde eta zerbitzu publiko deszentralizatuei buruzko foru erakundearen arauditik datorren diseinuari eustea. Zuzendaritza organoak Administrazio Kontseilua eta Zuzendaritza-Kudeatzaila dira. Administrazio Kontseiluko burua suteen prebentzioaren, sute itzaltzearen eta salmenduen gaineko ardura daukan foru diputatua da, eta buruordea arlo bereko eskumena daukan zuzendaritzaren titularra. Gaia kontuan hartuta, berariaz ezartzen da Arabako Toki Administrazio erakundeekin partaidetzan aritzea eta haiek informazioa ematea Arabako Toki Administrazio eta Finantza Kontseiluari gaiak planteatuz. Foru arau honen bidez aurreko zuzendaritza organo horiei zerbitzu publikoa behar bezala kudeatzeko behar diren eskuduntzak ematen zaizkie.

Lurraldean oinarritutako eskumena izanik, aurreikusten da zerbitzua handiagotuz kostuan izango den gehitzea Arabako Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtzaren kontura izan dadila. Horretarako, bada, Arabako Foru Aldundiak proiektu bat aurkeztu beharko du, Funtza Arautzen duen Foru Araua aldatzeko, eta kontuan izan beharko ditu bai egitate hori bai foru eta toki eskumenetan izango diren beste zenbait aldaketa.

Lehenengo artikulua. II. TITULUA. ARABAKO FORU SUHILTZAILEAK (Arabako Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzua) erakunde autonomoa sortzea

1. Onartzen da ARABAKO FORU SUHILTZAILEAK (Prebentzio, Su itzaltze eta Salbamendu zerbitzua) foru erakunde autonomoa sortzea.

Erakunde espezializatu gisa eratzen da, Arabako Lurralde Historikoan prebentzio, su itzaltze eta salbamenduko zerbitzu publikoa kudeatu eta emateko eta babes zibilean eta larrialdietako arretan parte hartzeko.

2. ARABAKO FORU SUHILTZAILEAK (Arabako Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzua) erakunde autonomoa Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Sailari atxikitzen zaio.

Bigarren artikulua. Foru Erakunde Autonomoaren estatutuak onartzea

Honen bidez, foru erakunde autonomoaren estatutuak onartzen dira; foru arau honen I. eranskinean datoz jasota.

Lehenengo xedapen gehigarria. Izenak

Foru arau honetan agertzen diren sailen eta zerbitzuen izenak aldi bakoitzean aipatzen diren eskumenak esleituta dauzkateni egokituko zaizkie.

Bigarren xedapen gehigarria. Jarduera hasteko aurrekontua

1. ARABAKO FORU SUHILTZAILEAK (Arabako Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzua) foru erakundearen 2016ko ekitaldiko aurrekontua Foru Arauaren II. eranskinean dator jasota.

2. Dena dela, gastua, are 2016ko ekitaldian zehar gerta litezkeen gastuaren estimazio iragankorretako aldeak ere, behar bezala egoteko beharrezkoak diren aldaketak egingo dira

Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuan nahiz Foru Erakunde Autonomoaren aurrekontuan. Horretarako, Arabako Foru aldundiaren 14. aurrekontu programan jasotako kredituak erabiliko dira.

Hirugarren xedapen gehigarria. Aurrekontu plantilla

1. Hasierako onarpena ematen da prebentzio, su itzaltze eta salbamendurako foru plana garatzeko beharrezkoak diren plazetarako (Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 15eko 222/2005 Erabakiaren bidez onartu zen foru plan hori eta, ondoren, ekainaren 21eko 46/2011 Foru Dekretuaren bidez aldatu): 99 (laurogeita hemeretzi) plaza dira, eta Foru Arauaren II. eranskinean jasota dagoen aurrekontu plantillan jasotzen dira.

2. 2017ko ekitaldirako, Aurrekontua gauzatzeko Foru Arauak edo horretarako arau bereziak, gehienez ere, honenbeste baimenduko dituzte:

a) Berrogeita hamar plaza gehiago, Iruña Okako udalerrian SISEUen parke zentrala abian jartzeko. Berrogeita zortzi azpieskala operatiboari dagozkio eta bi azpieskala teknikoari.

b) Hamabi plaza gehiago, dauden lau SISEUetako bat irekitzeagatik eguneko 24 orduetan.

3. 2018ko ekitaldirako, gehienez, beste hogeita lau plaza gehiago baimenduko dira dauden lau SISEUetatik bi 24 orduz irekitzeagatik, Aurrekontua Gauzatzeko Foru Arauaren bidez edo horretarako arau berezi baten bidez:

4. Behin abian jarrita foru arau honetan aurreikusitako unitateak, analisi bat egingo da Gorbeialdeko Kuadrillan SISEU berri bat abian jartzeko beharizanari buruz.

5. Aurreko paragrafoetan adierazitako ehun eta laurogeita bost plazak kasuan kasuko aurrekontuetan islatu beharko dira, hargatik eragotzi gabe sortzen diren ekitaldian zehar epeka zehaztea.

6. Xedapen gehigarri honetan jasotakoak baino plaza gehiago sortu ahal izango dira langile lan kontratudunentzat, baldin eta Foru Sektore Publikoko beste erakunde batzuetan langile lan kontratudunentzako plazak kendu edo amortizatu badira. Plaza berri horiek, ahal denetan behintzat, kendutako edo amortizatutako plazak betetzen zituzten langileak mugituz edo horiei berresleitzuz beteko dira.

Prozesu horiek ez dute inondik inora Foru Sektore Publikoaren soldata masa handituko.

Laugarren xedapen gehigarria Hasierako ondarea

Jarduerari ekiteko, foru arau honen bidez esleitzen zaizkion eginkizunak zein zerbitzutakoak diren, gaur egun zerbitzu horiei atxikita dauden ondasunak eta eskubideak eratzikiko zaizkio. Foru arau honen III. eranskinean daude xeheki jasota.

Bosgarren xedapen gehigarria. Aiarako PSISZ Partzuergoa desegitea

Aiarako PSISZ Partzuergoa estatutuetan jasotako bideetatik desegitea erabaki ondoren, partzuergoko funtzionarioak aurreko xedapen gehigarrian jasotako plazetan sartuko dira, eta funtzionarioen eskubide guztiak errespetatuko dira.

Era berean, foru arau honen bidez sortutako foru erakunde autonomoan sartuko dira egun partzuergoan dauden bitarteko material guztiak. Ondare elementuak Foru Arau honen III: eranskinean jasotakoak izango dira.

ARABAKO FORU SUHILTZAILEAK (Arabako Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzua) foru erakunde autonomoa partzuergoaren eskubide eta betebeharrak guztietan subrogatuko da hura desegiten denean.

Seigarren xedapen gehigarria. Gasteizko Udalarekiko harremana

1. Arabako Lurralde Historikoak, foru erakunde autonomoaren bitartez, Gasteizko Udalarekiko lankidetzak kudeatuko du aurrerantzean ere, lurraldeari zerbitzu emateko eraginkortasunez eta efizientziaz.
2. Foru erakunde autonomoa jarduten hasten denetik aurrera, lankidetzak hitzarmenak zerbitzuaren egitura berriari egokitu beharko zaizkio.
3. Gaur egun Prebentzio, Su itzaltze eta Salbamenduko Eskualde Unitateetan lanean ari diren langileak erakunde autonomo berriari integratu ahal izango dira, baldin eta haientzako plaza egokiak badaude eta foru erakunde autonomoaren lanpostu zerrendan eskatzen diren baldintzak betetzen badituzte.

Zazpigarren xedapen gehigarria. Nafarroako Foru Erkidegoarekiko harremana

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio erakundea desegin ondoren Nafarroako Foru Erkidegoarekin duen harremanarekin jarraitzeko, 2015eko uztailaren 15ean Nafarroako Larrialdietarako Agentziarekin sinatutako hitzarmenean jasotako baldintzekin.

Zortzigarren xedapen gehigarria

1. 2018ko abenduaren 31 baino lehen, Aurrekontuak Exekutatzeko Foru Arauak edo berriazko arau berezi batek behar besteko diru-kopurua bideratzea baimenduko dute SISEUen inguruetan helikopteroentzako guneak eraikitzeke lanak egite aldera: Hala, guzti-guztiek, Lau-diokoak barne, halako gune bat izango dute hurbilean, erreferentziazko emergentzia-zentro bihurtu daitezten.
2. ARABAKO FORU SUHILTZAILEAK (Arabako Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzua) organismo autonomoa Eusko Jaurlaritza eta Osakidetzak Su Itzaltze eta Salbamendurako Eskualdeko Unitateak (SISEU) osasun-larrialdietako zerbitzuek erabiltze aldera sinatua duten hitzarmenean subrogatuko da, zeina baimendua baitago 6/2012 Foru Arauaren bidez, eta sustatuko du Arabako Lurralde Historikoak hiru anbulantzia medikalizatu edukitzea.

Lehen Xedapen Iragankorra Jarduna hastea

1. Harik eta erakunde autonomoa, dagozkion giza baliabideak eta baliabide materialak atxikirik, jardunean hasten den arte, foru arau honen bidez esleitzen zaizkion eginkizunak Arabako Foru Aldundiaren eta Aiarako PSISZaren organo eta zerbitzu lehendik ematen dituztenek emango dituzte gero ere.
2. Foru erakunde autonomoa Miranda Ebroko Udalarekiko, Logroñoko Udalarekiko eta Errioxako SUSA Partzuergoarekiko hitzarmenen ondoriozko harremanetan subrogatuko da.
3. ARABAKO FORU SUHILTZAILEAK (Arabako Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzua) erakunde autonomoaren jarduerak hasiko dira Administrazio Kontseiluak erabakitzen duen datan, eta hori izango da, betiere, foru arau hau indarrean sartu ondorengo hiru hilabeteen barruan.

Bigarren xedapen iragankorra. Egitekoen jardun iragankorra

Zuzendaritza-kudeatzailearen titularra estatutu-tuetako 20.2 artikuluan ezartzen den bezala izendatu arte, haren eginkizunak erakunde autonomoko lehendakariordeak beteko ditu.

Hirugarren Xedapen Gehigarria. Baso-suteak itzaltzeko zuzendaritza- eta exekuzio-lanak bere gain hartzea

1. 2018ko abenduaren 31 baino lehen ARABAKO FORU SUHILTZAILEAK foru-organismo autonomoak (Arabako Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzua) bere gain hartuko du Arabako Lurralde Historikoan baso-suteak itzaltzeko zuzendaritza eta exekuzioa, hartara,

Arabako Lurralde Historikoan suteak prebenitzeko eta itzaltzeko zerbitzu integrala emateko. Vitoria-Gasteizko Udalak bere udal-dermioan deitzen eskumenak gordeko ditu.

2. Harik eta eginkizunak Foru Organismo Autonomoari eskualdatu arte, Nekazaritza Sailak izango ditu Arabako Lurralde Historikoan baso-suteak itzaltzearen prebentzioa, zuzendaritza eta exekuzioaren eskumenak, gaur egungo baldintzetan.

Xedapen indargabetzailea

Indargabetuta geratzen dira foru arau honetan xedatzen denaren kontra dauden maila be-reko edo beheragoko mailako xedapen guztiak.

Azken xedapenetako lehenengoa. Garapena eta indarraldia

1. Diputatuen Kontseiluak ahalmena izango du foru arau hau betearazi eta garatzeko behar diren xedapen guztiak emateko, bereziki inbentarioan egokitze teknikoak egiteko, foru arau hau izapidetu bitartean inbentarioan egiten diren eskuratze, zuzenketa eta bajak direla-eta.

2. Foru arau hau indarrean sartuko da Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean.

Azken xedapenetako bigarrena. Urriaren 30eko 15/1987 Foru Araua, Jarduera ekonomikoen eta deszentralizatutako foru zerbitzu publikoen kudeaketarena, aldatzea

Urriaren 20ko 15/1987 Foru Arauak, Jarduera ekonomikoen eta deszentralizatutako foru zerbitzu publikoen kudeaketarenak, 9. artikuluko b) idatz zatian eta 13.2 artikuluan ezartzen duena aldatzen da Administrazio Kontseiluko kideak hautatzeko organoa, administrazioaren jarduerarekin lotutako sailek proposamena aurkeztuta, Diputatuen Kontseilua izango dela ezartzeko:

9. artikulua

Nolanahi ere, Arabako Foru Aldundiko organoei dagokie, beren esleipenen arabera, ondoko gai hauen gainean erabakitzea foru erakunde autonomoei dagokienez:

b) Administrazio Kontseiluko kideak eta zuzendari-kudeatzailea izendatzea eta kargutik kentzea.

13.2 artikulua

2. Estatutuek ezarriko dute zenbat kide ariko diren Administrazio Kontseiluan. Kontseiluko kideak erakunde autonomoari esleitutako zerbitzu publikoarekin lotutako egitekoak dauzkaten edo zerbitzu hori hobeto emateko koordinatu beharreko Foru Aldundiko sailek proposatuko dituzte.

Azken xedapenetako hirugarrena. Zerbitzuaren finantzaketa

Prebentzioaren eta su itzaltzearen arloko eskumena partekatua denez gero, behin betez gero eskumen propioen gaineko eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde maila batzuen eta bes-teen finantzaketaren gaineko analisi orokorrari buruz Euskadiko Toki Erakundearen Legearen lehen eta bigarren xedapen iragankorretan ezarritakoa (2/2016 Legea, apirilaren 7koa), Arabako Foru Aldundiak, Arabako Toki Administrazio eta Finantzatarako Lurralde Kontseiluak txostena egin ondoren, foru arauaren proiektu bat aurkeztuko du, jasoko dituen, hala balegokio, Arabako Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsa arautzen duen 19/1997 Foru Araua aldatzen duen Foru Arauan egin beharko lirakekeen egokitzeak, analisi horren eta Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak onartutako erabakien ondorioz bidezko direnak.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko uztailaren 13a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA